

# c. 1910

## Eulalia Abaitua



### **Eulalia Abaitua**

Eulalia Abaitua Bilbon jaio zen 1853an eta Bilbon hil 1943an. Familia onekoa, ez zuen sekula estutasun ekonomikorik bizi izan. Zer dela eta aipatzen dugun hori? Bada, argazkilari “afizionatu” guztiak aberatsak zirelako. Fotografia, orduan, gutxi batzuen eskura zegoen. Abaituak Ingalaterran ikasi zuen argazkilaritza eta hona bueltatu zenean bere laborategia montatu zuen etxean. Berak egindako milatik gora argazki heldu zaizkigu (gehienak plaka este-reoskopikoak), asko eta asko Euskal Herriko tradizio eta jendea erretratatzeko. Balio berezia du haren obrak, gizonen mundu hartan ez baitzen erraza egin zuena egitea. Gainera emakume baten begirada utzi zigun, eta ordura arteko emakume ikusezinak protagonista bihurtu zituen.

Lekeition ere ibili zen, Oruetarrekin zegoen senidetuta, baina guri argazki gutxi batzuk baino ez zaizkugu heldu. Euskal Museolari esker dituzue liburu honetan.



Lequeitio, limpiando calamares, 1908. Eulalia Abaitua. Euskal Museoa-Bilbo

Lekeitioko plaza, XX. mende hasiera, Eulalia Abaitua. Euskal Museoa-Bilbo



Madalenako errekatxoa, XX. mende hasiera, Eulalia Abaitua. Euskal Museoa-Bilbo



Lekeitioko Isuntza hondartza, XX. mende hasiera, Eulalia Abaitua. Euskal Museoa-Bilbo

